

«Denok utzi ditugu alde batera gehiegi pentsatu gabe onartu ditugun gauzak»

Aurrenekoa argitaratu eta hiru urtera, helduarora hurbiltzen ari den Aleri erreparatu dio Alaine Agirrek Txandaka bildumako laugarrenean

N. AZURMENDI

DONOSTIA. Bildumaren izenak dioen bezala, txandaka ari zaizkigu heltzen Alaine Agirrek 2017an abiarazi zuen proiektuko protagonista. Aurreneko biak aurkeztu zituenean adierazi zuen bere asmoa zela «pertsoneiak hazten ikustea eta, haiekin batera, neu ere haztea». Bide horretan jarraitzen du, eleberriak –ez oso luzeak, 100-120 orrialde ingurukoak– argitaratzen ari den Erein argitaletxearekin batera.

Urteak betetzen jarraitu duten protagonistak nerabe zirela ezagutu genituen, 16 bat urteko neska-mutilak. Aurrena azaldu ziren 'Maren' eta 'Libe'; haiei eskainitako liburu banarekin sortu zen akegua bilduma. 2018an 'Oier' heldu zen, eta 'Ane' iritsi denerako ari dira denak nerabe-zaroaren eta helduaroaren arteko mugara ailegatzen.

Estuak dira pertsonaia nagusien arteko loturak, denak dabilza besteen liburuetan barrena. Alaine Agirrek laugarrenaren aurkezpenean gogoratu zuenez, «autonomoak dira, baina baina denen artean badago harremana». Bakoitza bere aldetik irakur daiteke, alegia, baina bat irakurtzeak pizten du besteetara hurbildu eta ikuspegia osatzeko grina.

'Ane'-k protagonistak daukan adinari eta bizi duen bizitzako faseari dagozkion arazo eta bizipenak ekarri ditu, aurretik Marenek, Libek eta Oierrek egin zuten bezala. Marene izan «nahiari eta desioei lekua ematen ikasi beharra». Liberen ondoan ikasi zuen. Libe, ordea, ez zen harreman itxian egon zalea, eta Marenen aurretik zeraman bizimodu libreari eutsi nahi zion, gaia Ma-



Alaine Agirre, Txandaka bildumako laugarrenarekin. E. A.

ANE
ALAINA AGIRRE

Generoa: Eleberria. Argitaletxea: Erein. Bilduma: Txandaka. Orri kopurua: 120. Salneurria: 12 euro.

reni nola planteatu argi ez eduki arren. Oierren bizitza, berriz, ama gaixotu zitzaionean aldatu zen goitik behera, eta modurik gogorrenean ikasi zuen bizitzan aurrera egiten, horretarako bera ere goitik behera aldatu zelarrik.

Bide propioaren bila

Orain arteko hiru protagonistek aldaketa handiak bizi izan dituzte. Ane ez da gutxiago, hori baita bizitzaren legea eta, neurri handi batean, bildumaren ildo nagusietako bat. Txandakako protagonistak, baina, ez dira aldaketa horien menpe gelditzen diren izaki pasiboak; aitzitik, «guztiak daude galderak egiten, eta galdera

horiei erantzun propioak ematen saiatzen, zein diren eta zer egin nahi duten» jakin nahirik.

Institutua amaitutakoan, Anek ez zeukan betere argi zer egin nahi zuen. Oso konbentzita ez bazegoen ere, familiaren planei men eginez unibertsitatean hasi zen, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua ikasten.

Itxurakeriak ez du ordea asko iraungo: «Momentu batean oso argi ikusten du ez dela hori egin nahi duena, baina etxean ez diote onartzen. Hasieran akademiakoa zen auziak okerrera egingo du, eta etxetik alde egingo du». Herritik hirira; familia girotik pisu partekatu batean bizitzera; oinarriko beharrak beteta edukizetik, bizimodua ateratzea. Bizileku berrirako bidaia, hain zuzen, «barne-bidaia ere bada».

Aneren istorioak, idazlearen hitzetan, «bi ezaugarri indartsu ditu. Batetik pisua dago; liburuan

presentzia handia du pisuko bizitzak. Lagun berriak egingo ditu bertan, eta karreran ikasi ez zituene beste gauza batzuk ikasiko ditu. Bestetik, lana. Harategi batean hasiko da lanean, lan prekario batean», berezoztat aurpegi bat eta langileentzat beste bat duen nagusi baten esanetara.

Ane, alegia, «bere bidea egiten hasten da, baina ez dauka heldulekurik». Zeri heldu aurkituko du, nagusiki, bildumaren paisaia zertxobait zabaltzen duten lagun berrien bitartez. Azken batean, ez zaio pasatzen bizitzaren une horretatik igaro den edonori gertatu ez zaionik. «Aneren esperientzia ikusten dut jolas bat bezala –zehaztu zuen Alaine Agirrek–, denok pasatu dugulako fase hori adin horretan. Errebisio bat egiten duzu, eta askorik planteatu gabe jaso eta onartu dituzun gauzak alde batera uztea erabakitzen duzu, ez dizutelako balio».

El Etxepare premiará con 5.000 euros el mejor libro ilustrado infantil

R. K.

SAN SEBASTIÁN. El Gobierno de Navarra ha convocado a través del Instituto Vasco del Euskera el Premio Etxepare a la creación de álbumes infantiles en euskera. El galardón, que recompensará con 5.000 euros a la mejor obra, cuenta con el respaldo de una veintena de entidades locales de la comunidad foral. Las bases del certamen, que se pueden consultar en la web 'www.etxeparesaria.eus', especifican que los álbumes a concurso deberán tener al menos 15 páginas dobles con una extensión de texto superior a 4.000 caracteres. El plazo de presentación de los originales se cerrará el próximo 7 de mayo y el premio se fallará antes del 30 de junio. El Premio Etxepare a la creación de álbumes infantiles cumplirá en 2021 su 15 edición. La obra que resulte galardonada será publicada en euskera por la editorial Pamie-la, que es colaboradora de la convocatoria.

El Prado, el Reina Sofía y el Thyssen amplían su cierre por el temporal hasta el viernes

E. P.

MADRID. El Museo Nacional del Prado, el Museo Reina Sofía y el Museo Thyssen, cerrados por el temporal, han ampliado esta medida al menos hasta el viernes, informaron ayer desde las pinacotecas. El pasado viernes, tanto el Prado como el Museo Reina Sofía indicaron que el cierre se producía ante la situación del temporal de nieve «para garantizar la seguridad de sus trabajadores y reducir el número de desplazamientos en Madrid».

Ambas instituciones decidieron ayer ampliar la decisión al menos hasta el viernes. En el caso del Reina Sofía, además, explicaron que en lo que respecta a la fecha de reapertura del Palacio de Velázquez y de Cristal, situados en el Retiro, está «aún por definir» ya que se está a la espera de las instrucciones de los responsables del Parque, dependiente del Ayuntamiento de Madrid.

EH Bildu propone una ponencia para elaborar un «estatuto vasco del artista»

Apuesta por adecuar la fiscalidad en el sector y establecer unas condiciones mínimas de protección social

E. P.

VITORIA. EH Bildu registró ayer en el Parlamento Vasco una propuesta para constituir una ponencia destinada a elaborar un «estatuto vasco del artista» con el fin de conformar un marco normativo «adecuado» que facilite la creación. El objetivo de la coalición es que este foro parlamen-

tario sirva para diseñar una norma que sea «fruto de la pluralidad, del consenso y de una amplia participación», tanto por parte de los grupos políticos como de los agentes del sector.

El parlamentario Josu Estarona recordó en rueda de prensa que ya existe un estatuto estatal del artista. No obstante, considera que es «imprescindible» con-

tar con una norma específica para Euskadi, dadas sus «singularidades» en aspectos como la fiscalidad o las competencias culturales. Estarona explicó que la actividad artística presenta ciertas «peculiaridades» como la temporalidad, la intermitencia en el trabajo o la «incertidumbre» sobre los resultados del proceso creativo. A su juicio, los profesionales y empresas del sector necesitan «un marco adecuado que facilite la creación» mediante unas condiciones «mínimas» en materia de cobertura y protección social.